

Kristonak Arratiako rock taldeak Liverpooloko The Cavern aretoan joko dau hilaren 12an

Dimetal Fest-en jo ostean, Kristonak taldeak hitzordua dauka The Beatles taldeak bere lehen kontzertua emon eban klubean. Peio Artetxe baju-jolearen esanetan, talde biek desbardintasun gehiago ditue antzekotasunak baino; baina desbardintasun horreek guztiek egiten dabe talde biak rockero. Urtebete da Kristonak izenagaz (lehen, Eskean Kristö) bere lehen diskoa, *Ahobetehortz*, kaleratu ebela. **16. orrialdea**



Argazki Lehiaketako irabazlea Aitor Arnaiz izan da

Guztira 48 argazki egon dira lehian, paisaiak personengan daukan eraginaren gaineko hausnarketea biztuten dabenak.

Epaimahaikoen arabera, argazki irabazleak, -umea itsasertzean- "paisaia eta gizakiaren loturea, denporatik kanpo eta harago, esentziatzeko eta betiko mobimentu baten erretratu dakargu gogora. Milaka urtetan hainbat bider errepetidutako eszena bat: 2023ko ume bat da, baina oin dala 30.000 urteko homo sapiens-aren ume bat be izan eitekean". Irabazleak astegoienean lan-detxe baten izango dau sarizat.

Bigarren saria, Illart Gumuziok Habanan ateratako argazkiarentzat izan da. **9. eta 10. orrialdeak**



Bediako alkateari alkarrizketea



Bediako alkateari egindako alkarrizketeagaz, BEGITU eremuan bagilaren 17an alkate makilea hartu ebenei alkarrizketa saila amaituten da. Aitor Sorriketa da eremuko alkaterik beterranoena, bost legegintzaldi egin ostean seigarrenari ekin deutsana. **11. orrialdea**

ARRATIA

A&H-k, *Lubakiak* rock operearen kantuen diskoa kaleratu dau

Igorreko Iñaki Akesolok eta Dimako David Ibarra "Houston"ek, euren artean sortutako *Lubakiak* rock opera osotuten daben 13 kantuen diskoa kaleratu dabe. Hamar urteko lana da eta Arratiako tabernetan dago salgai. **17. orrialdea**



DIMA, ARANTZAZU

Sanfreskuak Indusin eta sanfaustoak Arantzazun

Dimako Indusi auzoan eta Arantzazun udagoieneko jaiak ospatuko ditue oingo hamabostaldian. Indusin San Franzisko egunean eta hurrengo bariku-zapatuan eta Arantzazun hilaren 13tik 15erako astegoienean ospatuko ditue. Musikea, jana eta beste jarduera asko eratu ditue. **6. eta 8. orrialdeak**



LEMOA

Ikastolea sortu zaneko 50. urteurrena ospatuko da

Urri bigarrenaren 6an, 19:00etan, izango da ekitaldia Kotxepin Kultur Etxean. Bertan, Lemoako Udalak herriko hezkuntza sistemeari aitortpena egingo deutso.

Ekitaldian, Ikastolan andereño izandako Nerea Atutxak hartuko dau berbea. Atutxak ikastola "klandestino" haretan bizi izandakoak ekarriko ditu gogora. Argazki gitxi batzuk be batu ditu Udalak eta ha-reek be egongo dira ikusgai.

Auzo-eskolek, ikastolek (transizioan sortuta eta askotan, klandestinoak izaten ziranak) eta gaur egungo eskola publikoek osotuten dabe herri hezkuntza sistemeari katearen katebegiak. **7. orrialdea**

Literatura txokoa

PULP

Bizimoduaren absurduaz gogoeta egiteko Bukowskyren nobela hau ametsetan lez idatzia dago, burua beste nonon eukan Bukowskiren obra gorena. Alokairua ordaintzeko idatzi ebazan liburuaren artean sailkatu izan dau batek baino gehiagok *Pulp*, baina beharbada karga sakonagoa dauka, beharbada *stablishment*aren kontrako alegatu bat be bada, Amerikaren beste arpegia erakusten deuskun obra arean iluna.

Alkoholak erretako personaia triste, prepotentea begietan harzteako gaitasuna erakusten dau hemen Bukowskik, gordin baina txeratsu aurkezten deusku-ta lurr jota dagoan detektibe pribadua. Kolpeak baino jaso ez, eta munduaren aurrean ez dauka,

antza, defendiduteko beste modurik.


Bukowskyren narrazioetan sarri pasetan dan legez, kontakizunak gainezka egiten dau eta zoramena, gogorkeria zein drogak ditu, hari argumentalak berak, aterabide bakar. Moralinarik ez darabil idazleak, baina ezin esan geinke mezurik ez daukanik, uste baino sakonagoa eta uste baino ertz gehiagokoa da eta, hemen errealidadea.

Ezelango ardura etiko barik bizitzaren errekan behera gure burua abandonetako dogun eskubideaz ari da batzuetan Bukowski. Poderea, patua, dirua... itzalen joko bat baino ez dira atzean dagoana ostenduteko: Bukowskik kantetan deutso vodka artean bere burua

tragetan astiro-astiro dabilen tipo xarmangarriari.

Eta gainera estilo aldetik be idazleak ez deutso inoz uko egiten gauzak eder deskribiduteari eta ingelesa -Josu Lartategiren euskera ederra- traukiltzeari. Bizitzaren absurduaren erdian, absurdua izango litzateke, izan be, kanonak kunplidutea. Non eta gizatasunaren kodeak galdu dituan Los Angeles baten! Eta holantxe ailegetan da bat atzen orrialdera. Eta ez daki nor madarikatu.

Igor Estankona



Charles Bukowski
(Josu Lartategi)

Pulp

Txalaparta, 2002

244 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 2tik 8ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 9tik 15era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 16tik 22ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo


Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXII). Kale berbakunea sustatu guran

HITANO EUSKAL HERRIAN ZEHAR:

- Aupa hi Joxe!! Hi Gipuzkoan bizi hintzan txikitan, **eztok?**
- Bai, aita giputza dok eta han bizi **gintzoazan** nik hamar urte bete arte.
- A bai, e!! Eta diferentzia **jaok** hitano bien artean?
- Ba, bai eta ez.
- Hitano mota bi **jaozak** orokortuz. Oñatiraino Bizkaikoa erabilten **jauriek**, eta ekialderantzago gipuzkerazkoa. Adibide bat ipintearren, hik **jaok** aditza erabili **dok, eztok?** **Jaok** laburtuta **dok**, berez **jagok dok** aditza. Ba han **zagok** edo **xagok**, laburtuta **xauk** edo **zaok**.
- A!! Bale horregaitik esaten **jauriek** Oñatin: **xaukena xauk!!**

ERETXIA

Euskereak egon egon behar dau

Euskereak egon egon behar dau. Leku eta arlo guztietan: eskolan, Netflixen, fabriketan, taberna bazterrean, twitz-en, komuneko okuluen, futbol zelaian, prensa aretoan, bulegoetan, Tiktok-en, epaitegietan... eta Gorteetan.

Gugan dago eta gugaz dator. Eta, geuk ez badaroguz, ez dago. Hau da, ez da existiduten. Barrutik kanpora ateratea guri jagoku, hollantxe baino ez da bizirik egongo, zorrotz eta zoli, gure hizkuntzea.

Espainiako Diputatuen Kongresuan euskerea be egotea -eta erabiltea- pozgarria da. Ha-ta guzti be, bertako asko eta asko hizkuntza gitxituen kontra dagoz. Barriz, aldeko botoa emon daben gehienak be ez daukaguz alde, behintzat hori argi eta garbi euki behar dogu.

Politiko batzuek Kongresuan ahoan erabiliko dabe gure hizkuntzea. Ze mezutan, noz eta zelan entzungo doguz euskeraz? Esaldi lodiak edo azalekoak erabiliko ditue? Ni neu bildur naz. Ez dakit zergaitik, baina eretxia daukat barriro be mezu esanguratsuenak Cervantesen hizkuntza barriaren esango dituen.

Borja Semper "poeteak" be argi eta garbi adierazo dau: Espainiak hizkuntza komun bat dauka, guztiontzat eta guztion, danok legez eta indarrez jakin behar doguna. Besteok gure hizkuntzea komunean edo eskusuan erabili daikegu. Baina ez gaitez an inposatzaileak otoi, bai ostera, behingoz, malguak, demokratik eta internazionalistak; hau da, *guay, posh* eta modernoak.

Aspalditik dakigu, estatu podere-suek ez ditue hizkuntza txikiak maite, ez ditue gura, altxorak dirala esan arren hareen gorputzetan arrakalak, mina eta ezinegona dira.

Hizkuntzeak hariltzen deuskuz txatalak, berak alkartzen gaitu, batu, trinkotu, indartu, sendotu.



IBON IZA

Irakaslea

Hizkuntzeak egiten gaitu herri, eta hori estatu podere-suek ondo baino hobeto dakie. Hizkuntza barik lau buru gara, azala, mamirik eta bihotzik bako herria.

Testuinguru barri honetan Euro-para be heldu leiteke gure emoia, eta heltzean danean barriro poztuko gara. Baina, ezin geinke gure paparra puztu, inondik inora be ez. Poztu bai, puztu ez.

Euskerea dana beharrean dago, euskereak behar gaitu. Gutako bakotzak egin behar dau burrukan, egunero, dendan, taber-
nan, administrazioan, eskolan, epaitegietan...

Jakin badakit erderaz bizitea errazagoa dana. Gu, baina, txikitatik indioak maite izan doguz, mendi gainera igonda maitasunez euren lurra defendidu ebenak; iretargiari eta eguzkiari begira amets egiten eben giza-ki miragarriak (eta ez, ez ziran Indiakoak) estimuan daukaguz oindino. Nahiz eta galtzaile argiak izan.

Bizi nazen artean euskerea erabiliko dot, nahinon eta nahinoz, umorez, bizi, eta ahal danik eta zorrotzen. Ostera, mesede bat eskatu behar deusuet: hiltzen nazen egunean euskeratik eta euskeraz agurtu naizue, haren zatitxu bat neugaz eroan arren adabakirik ederrenak Gorteetan barik zeuengan, gure kantuetan eta gure lur emonkorrean egongo dira-ta.



LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA**

Gorbeialdeko pastoreak

Gorbeia inguruko etno-
ipuin eta esaundak bat-
zean daragoiot, eta ba-
tek baino gehiagok esan deust
ia "artzain" berba euskalduna
eukita, zergaitik erabilten dogun
Gorbeialdean erderazko "pas-
tore". Aikomen nire erantzuna.
Euskerazko "artzain" ardi+zain
da, ardiak zaintzen dauzana.
Gorbeialdeko mendi-larreetan
ardiak ezeze, beste ganadu kla-
se asko be badabil pastuan, eta
ganadu guztion jagoleei, "pas-
tore" esaten deutsegu. Goazen
ba Gorbeialdeko ganaduak aita-
tutera.

Ardietatik hasiko gara.
Hainbat ardi-errebainu egon
dira eta egon be badagoz oindi-
nokarren. Zaldiak eta behorrak
nahinondik dabilz arrantotsean.
Ahuntz-pastorea be baegoan
"kabrerue" eritxana. Lehenago,
mandoak be baebilzan euren
mandazainakaz. Aldi baten, Ze-
berioko Santo Tomasen basa-

behi edo herri-behi elia egoten
zan Arrabako Landa zarratuan
eta gaur soltuan be bai ingur-
ruetan. Astoak be ikusten izan
dira pastoreen txabolondoetan.
Izan be, astoa lagun ona ei da
lainabehereagaz etxera bidea
topetako. Guztiokaz batera,
ezin ahaztu pastore batzuen
txaboletako txarriak, gaztaira-
rako ez dan esneagaz loditu-
teko. Azkenik, zelan itxi aiatu
barik pastore-txakurrak, pastore
bakotxaren txistu, eupada eta
zantzo agindupean dabilzanak!

Gure pastoreak, gehiago edo
gitxiago denodu handiagaz ja-
goten dabez euren ganaduak
eta adi egoten dira euren gora-
behera eta araldi edo zeloagaz
kargutuz. Abere emeen kasuan,
"zelo" kontzeptu hau sano abe-
ratsa da adierazoteko orduan,
bata besteagandik bereizteko;
esaterako, behiak, susara; be-
horrak, giri; astoak, alta; ardiak,
arkera; ahuntzak, azkara; txar-
riak, irausi; txakurak, agiri; eta
abar. Labur esanda, ze ederra
Gorbeialdeko pastoretzea eus-
kera aberatsagaz batera.

Amaitzeko, aiko Gorbeialde-
ko pastore biren komertazinoa
Arrabako Landan: ardi-errebai-
nuak pastuan eukiezala, badi-
notso pastore batak besteari:
hi, ardi bat emoten badeus-
tak, bikoztu egingo joat nire
ardi-errebainua. Eta besteak
atoan erantzun: heuk emoidak
ardi bat eta halan biok bardin.
Zenbat ardi pastore bakotxak?

ZERTZEAN



AMAIUR SANTOS



ago

BEGI TXINDORRA


Uriolek, suteek, muturreko tenperaturek... heriotza asko eragin
dabez 2023 honetan, eta 20 urte baino gehiagotan iragarri-
tako aldaketa klimatikoa hemen dala eta uste baino gogorra-
goa izango dala dinoe zientzialariek. Politikariek hamaika batzar eta
hamaika berba egin dabez euren kezka adierazoten, baina interes
orokorraren gainera, gure espeziearen biziraupenaren gainera, en-
presa handien mozkinak ipinten jarraituten dabe, lotsa barik.

Adibide bi.

Europa mailan, hau idazten nagoan egunean, Europar Batasune-
ko Industria ministroek ibilgailuen isurietako arauaren aplikazioa
2025etik 2027ra auto eta ibilgailu arinentzat eta 2027tik 2029ra
kamioientzat atzeratzea adostu dabela irakurri dot. Helburu "handie-
giak eta irrealak" ei ziran aurrekoak. Autogintzako industriaren inte-
resak nagusitu dira, klima aldaketaren kontrako burrukaren gainera.

Arratia mailan, Garamendiko hatxetan, sai zurien habiak dagozan
eremuan, Red Electrica Española torreak altxetan hasi da, legearen
gainera pasauz, sai zuria espezie babestua izan arren. REEren intere-
sak nagusitu dira, biodibersidadearen gainera.

Ekintzek guzurrak ez: nor dan nor edo nor daukagun alde jakiteko
ez jakie berbei erreparau behar, ekintzei baino.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com


agoa
hagin klinikak
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1. behea
48140 Igoñe-Bizkaia
T. 94 631 50 39
ikolagata Zerbitzu 900
R.P.S. 31/06

649 979 115



inigoirua@begitu.eus

IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN



ZEANURI

Zeanurik barriro be Uemako kide izatea ebatzi eban urri lehenengoaren 21eko osoko bilkuran

EH Bilduko bost ordezkarien eta EAJ-PNVren lau zinegotzien aldeko botoakaz, ebatzia aho batez hartu zan urri lehenengoaren 21ean egindako osoko bilkuran. Uemak abenduan egingo dauan ohiko Batzar Nagusian aztertuko ditu herriek egindako sartzeko eskaerak eta onartutakoan, Uemako 102. udalerria izango da Zeanuri.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Erredakzioa

Zeanuri Uemako lehen udalerrietako bat izan zan, baina gero mankomunitate horretatik ateratea ebatzi eban. "Gu oin Udala Gobernuan gagozanok pentsetan dogu ebatzi inportante bat dala herrirako Ueman sartzea. Nahiz eta Zeanuri arnagunea dan, ikusi dogu atzen urteotako tendentzian erabilera nahikotxo bajatu dala, eta hori izan da errazietako bat sartzeko, euskereari bultzadea emotea"

azaldu eutsan Nahia Urrutxua Zeanuriko alkateak BEGITUri Ueman sartzea onartu zan plenoaren ostean. EH Bilduk ordezkari bat izango dau eta beste bat EAJ-PNVk.

Arnagune

Zeanurik 1.271 biztanle ditu, eta euskaldunen indizea %87,3 da biztanleen artean. Baina arnagune diran beste herri askotan legez, euskerearen erabilerearen hauskortasunak kezka sortzean dau Udalean. Euskerea norma-

lizetako eta indartzeko beste udalerrri euskaldunakaz alkatzea lagungarria izaten da; izan be, Uemak hainbat ildo ditu arnaguneak jagoteko eta garatuteko. "Uemak daukan esperientzia baliatuz herritarak ahalduntzea eta konzientziatea garrantzitsua da, gero hizkuntza ohiturei eusteko. Hori guztia landuteko Uema ezinbesteko bidelaguna da"

azaldu eban Zeanuriko alkateak uema.eus-en.

Uema

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, Uemak, martian gaudituz eban 100 udalen langa. Zeanuri batzean, 102 udalerrri izango dira eta 306.000 biztanleko lurgune euskalduna osotuko dabe Uemako kide diran udalerrien artean.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Irati Iciar, Tokikomeko presidente barria



Erredakzioa

Urri lehenengoaren 22an, Irati Iciarrek (Oñati, 1975) hartu eban Kike Amonarrizen (Tolosa, 1961) lekukoa Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari izan. Ermuan egindako Batzar Orokorrean.

Irati Iciar, Historia ikasketak ditu, UEU Udako Euskal Unibertsitateko Etengabeko Prestakuntzako Koor-

dinatzailea, eta Gasteizko mobimentu euskaltzaleko kide dinamizatzailea izateaz gainera, urte asko daroaz Topaguneko zuzendaritzan. Kargua hatzerakoan, "poza" baina baita "bertigoa" eta "lan egiteko gogoa" sentidu ebazala esan eban eta andra izanda eta Gasteizetik etorrira, periferiako ikuspenean izan daitekela Euskaltzaleen Topaguneari egin ahal dauan ekarpena.

ZEANURI

Gorbeia aterpea hobetuteko crowdfunding kanpaina abiatu dabe

Erredakzioa

Hiru pausu izenpean, Gorbeia aterpeko etxezainek dirua batzeako kanpaina bat abiatu dabe Verkami plataforman, urri bigarrenaren 15era arte egongo dana indarrean. Dirua, aterpean hobekuntza batzuk egiteko gura dabe.

Lehenengo pausuaren helburua 10.500 eurotara ailegetea litzateke eta diru horregaz pellet berokuntza ipini eta egurreko teilapea konpondu gura dabe, aterpera joatean "hotza zailtasuna izan ez daiten".

Konponketen bigarren pausua atsedean lekua barrizatzea izango litzateke eta 20.200 eurotara ailegau behar dira horretarako. Oheak barrizatzea, gelak egurrez isolatutea eta janlekuko zaratea moteltzeko panelak ipintea litzateke bigarren pausu hau. Hirugarren pausua, komunak barrizatzea da. Horretarako 34.700 euro behar dabez.

Kide, laguntzaile, aterpeko lagun eta babesleak

Ipinitako diru kopuruaren arabera, kide, laguntzaile, aterpeko lagun edo babesle izan daiteke lagunduten dauan norbanako edo entidadea. 25 euroko dirulaguntzea emoten dabenak dira kideak; 50 euro ipini ezker, laguntzaileak; aterpeko laguna izateko 100 euro ipini behar dira, eta entidade, klub, alkarte, enpresa eta abarrek babesle izan gura badabe 300 euro ipini behar ditue. Jangelan egongo dan hormairudi baten presentzia eta deskontuak dagoz, besteak beste, lagunduten dabenentzat sari moduan.



ARRATIA

Bederatzi enpresak sinatu dabe euskerea lan munduan bultzatzeko konpromiso

Piedade Ondo, Arratia Egoitza, Jandoniz, Cementos Lemona, Alinar Die Casting, Arbisa, Wolco, Alfe Cutting eta Ekin eraiketak batu dira eusGara proiektura aurten. Holan, Arratiako 29 enpresek osotuten dabe eremu sozioekonomikoan euskerea sustatzeko komunitadea.

Erredakzioa

Aurten, Arratian dagozan hiru zahar etxeak batu dira eusGara proiektura. Edadeko egoitzetako zuzendaritzakoek, honen garrantzia azpimarratu eban. "Egoiliarak hobeto zainduta egongo dira holan" esan eban. Izan be, Arratian 65 urte baino gehiago dituen herritarren %60ren ama hizkuntza euskerea da eta amahizkuntzan jasotzea zaintzak, euren ondoizatean eragina dauka.

Igaz eusGaran abiatutako turismo pilotajetik, Errotik proiektua sortu da. Gorbeialde alkarteak kudeatuko dau Arratia eta Hego Nerbioi eskualdetako landa garapenerako estableziementuetan euskerea sustatzeko proiektu hau.

Ekitaldia

Sinatze ekitaldia Zulaibar Campusean egin zan eta bertan egon ziran Iratxe Goikoetxea eusGara kudeatzen dauan Errota Fundazioako koordinatzailea, Miren Dobaran, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Isaac Amezagak, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera zuzendari nagusia. EusGarak enpresei, hainbat zerbitzu eskaintzen deutse doban: itzulpen zerbitzua, hizkuntza aholkularitza, dirulaguntzen kudeaketa eta trebakuntza saioak besteak beste.

Goikoetxeak eusGararen sei

urte honeetako garapena azaldu, eta balioan ipini eban hainbeste zabaldu izana; baita lortutako emaitzak be. "Hainbat enpresatan euskerearen erabilera handitu egin da bai barrura begira bai kanpora begira" esan eban. Eta arlo eta izaera desbardinako enpresetara heldu dala eusGara, euretara egokitzen dan zerbitzua dalako.

Jaurlaritzako Miren Dobarane lan mudua euskeratzearen garrantziaz jardun eban. Izan be, holan izan ezik, Hezkuntzan euskerearen alde egindako esfortzu guztia galdu egiten dalako. Gainera, euskereak balio erantsia emoten deusiela enpresei ekarri eban gogora.

Isaac Amezagak, proiektuaren parte diran eragile guztien lana eta inplikazioa ipini eban balioan eta oindino proiektura batu ez diran enpresak, proiektura ba-

tza animau ebazan.

Makinak euskaraz erronka

Ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Euskera Sustatzeko zuzendaria Estibaliz Alkorta, bertan bildutako enpresei erronka bat ipini eutsen: euskerazko ahots *corpusa* egin ahal izateko, Gaitu kanpaineagaz bat eginez, euskerazko grabazioak egitea. Izan be, makinek euskeraz funtzionetako, lehenengotik hizkuntza irakatsi behar jakie, eta horretarako milaka ahots eta grabazio ordu behar dira. Horretarako kanpaina bat ipini dabe martxan Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak, Common Voice proiekturako euskerazko ahots *corpusa* sortzeako eta www.gaitu.eus webgunea sortu dabe, bertan euskerazko esaldiak grabetako aukerea emonaz.



ARANTZAZU

Arantzazuko 2024ko egutegia egiteko Argazki Lehiaketa ipini dau martxan Udalak

Erredakzioa

Parte hartzeako, Arantzazuko bazterren erretratuak, urri bigarrenaren 27ra arte bialdu daitezke idadkaritza.arantzazu@bizkaia.org helbidera. Parte hartzaile guztien artean, 12 argazki aukeratuko dira Arantzazuko 2024ko egutegian agertzeko. Zemendiaren 6tik 10era, argazkiok liburutegian egongo dira jentek bozkatu ahal izateko eta lehenengo hirurek saria izango dabe. Argazkiak, 300 ppp-ko bereizmendun jpg for-

matuan aurkeztu behar dira eta parte-hartzailearen izen-abizenak

eta telefonoa be adierazo behar dira mezuan.



DIMA

Hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe Indusin sanfreskuetarako

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 4an, Asisko San Franziskoren eguna da eta Dimako Indusi auzoan jaiak ospatuten dabez. Aurten, Indusiko eskolearen sorrerearen mendeurrena be ospatuko dabe, eskolearen eta han ibilitako ikasleen argazki erakusketa batez.

San Fresku egunaren hurrengo bariku-zapatuan izango dira Indusiko Jai Batzordeak eta Dimako Udalak prestatutako jai egitarauaren ekintza gehienak eta egun horreetan, jana, edana eta musikea ez dira faltauko, auzokoaren artean disfrutatuko.

Urri bigarrenak 4, eguaztena

12:00etan, mezea.
12:45ean, Indusiko auzo-eskolearen 100. urteurrena. Urteurreneko argazkiak egunero egongo

dira ikusgai. Ostean, barauskarria.

Urri bigarrenak 6, barikua

17:00etan, Briska eta Tute Txapelketak.
19:00etan, txitxi-burduntzia.
21:00etan, Eingo.
22:00etan, txokolatea.

Urri bigarrenak 7, zapatua

12:30ean, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia.
14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketa.
14:30ean, bazkaria eta bazkalostean bertsolariak: Beñat Ugartetxea eta Ibon Ajuriagojeaskoa.
17:00etan, umeentzako ekintzak.
19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketa.
21:00etan, bakarrizketa: Maria Blanco, Iker Plazaola eta Julen Portillo.
22:00etan, erromeria Jainaga eta Narbaizagaz.
22:30ean, txokolatea.
23:00etan, zozketa.



ZEANURI

Mazala andra taldeak antolatutako hipopresibo ikastarorako izen-emotea zabalik

Erredakzioa

Ikastaroa, urri bigarrenaren 2tik urtailaren 29ra arte, astelehenero, izango da 18:15etik 19:15era gimnasioan. Izena emoteko mazalaandratalde@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Ikasturteko lehen hiru hilabeterako berbaldia, beste ikastaro bat eta zine-foruma be antolatu ditu. Izan be, urri bigarrenaren 19an, sorgin-ehizari buruzko berbaldia emongo dau Josune Muñozek *Sorginkeria, sorgintasuna ala sorgintza? Sorgin-ehiza Bizkaian* titulupean. Josune Muñozek berak emongo dau Mazalak antolatutako beste ikastaroa, literaturearen gainekoa, *Basa emakumeak eta baserri giroa euskal literaturan* izenpean. Ikastaroak hiru saio

izango ditu eta eguenetan izango da: urri bigarrenaren 26an, zemendiaren 2an eta 9an. Azkenik, zemendiaren 23an, *Si de verdad quieres* pelikulearen inguruko zine-foruma egongo da.



ZER EGIN DEZAKET NIRE ZORU PELBIKOA ZAINTEZKO?

HIPOPRESIBO IKASTARO BERRIA

Urriak 2tik-urtarrilak 29ra
Astelehenero
18:15etatik 19:15etara
Gimnasioan

Mazala Andra taldeak antolatuta
0974 004700 | mazalaandratalde@gmail.com

LEMOA

Hezkuntza sistemeari aitorpena egingo deutso Udalak Ikastola sortu zaneke 50. urteurrenean

Erredakzioa

Kotxepin Kultur Etxean izango da ekitaldia urri bigarrenaren 6an, 19:00etan. Bertan, Esther Iturrioz alkate eta Lemoako eskolako irakasle izandakoak hartuko dau berbea lehenengo, eta gero, 1973an sortutako Ikastolan andereño izandako Nerea Atutxak. Atutxak ikastola "klandestino" haretan bizi izandakoak ekarriko ditu gogora. Argazki gitxi batzuk be batu ditu Udalak eta hareek be egongo dira ikusgai. Bertara joan ahal izateko izena emon behar da udal webgunean.

Udalaren arabera, herriko hezkuntza sistemako katebegi bat izan zan, 1973an eleiza ondoan sortutako Ikastola ha. Auzo-eskolek, ikastolek (transizinoan sortuta eta askotan, klandestinoak izaten ziranak) eta gaur egungo eskola publikoek osotuten dabe katea.

Ikastola

Franco oindino bizi zan sasoi latz haretan, ikastolek umeei euskeraz ikasteko aukerea emoteko sortu ziran; gehienetan gurasoen ekimenez. Guztietan, gurasoek konpromiso handia hartzean eben eta ikastola aurrera atera ahal izateko, lan gogorra egin be-

har izaten eben. Guraso hareei be aitorpena egin gura deutse Lemoako Udalak.

Lemoako eskola publikoa 1973an edo 1974an eregi bazan be, Ikastola eta eskola publikoaren arteko "fusino prozesu" a, bateratzea, 1981-1982 ikasturtean egin zan, Eusko Jaurilaritzeak eskatuta, eskolan klaseak euskeraz emoten hasi ziranean.

Atzen katebegiak

Herriko hezkuntza sistemearen atzen katebegia JB Eguzkitza Meabe Ikastetxe Publiko Integrala da. Eskola txiki bat zan hasieran, patioa zabalagoa zan eta ez egoan hainbeste asfalto. Eraikinean be espazioa sobran egoan. Baina 2013an, DBH emoten hasi eta al daketa handia gertatu zan eskolan; eskola izatetik ikastetxe publiko integral (IPI) izatera pasauz. 2023-2024 ikasturte honetan, 552 ikasle eta 65 irakasle inguru dagoz bertan. Haur Hezkuntzako 8 gela dagoz, Lehen Hezkuntzako 12 eta DBHko 9 gela.

Aurrera begira, hainbat proiektu ditue martxan: euskerearen erabilera sendotzea, patio inklusiboa egitea, eredu pedagogikoa finkatu eta hobetutea eta digitalizazioan sakontzea, besteak beste.



ARRATIA

Ondare immateriala ikusi arazoko dabe Ondarearen Europako Jardunaldietan

Aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldien gai nagusia, ondare immaterial bizia izango da.

Bisita gidatuek eta ibilbideek, erakusketek eta berbaldiek, kontzertuek eta mota guztietako kultura-adierazpenek, 150 jarduera inguruk, osotuten dabe Bizkaiko egitaraua.

Erredakzioa

Dimako ibilbide mitologikoa Baltzola eta Jentilzubitik eta Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea eta euskal mitologia Gorbeian dira jardueretako batzuk. Kofradien arteko Bola Txapelketea urri lehenengoaren 30ean jokatu zan.

Unescok holan definituten dau ondare immateriala: "belaunaldiz belaunaldi komunitateek transmititutako praktikak, adierazpenak, jakintzak edo teknikak. Ondare immaterialak identitate eta jarraipen sentimientua emoten deutse komunitateei: sormena eta gizarte ondoizatea bultzatzen ditu eta ingurune naturala eta soziala kudeatzen laguntzen dau".

Bizkaia ondare immaterial aberatsa dauka eta horren zatitxo bat erakutsiko dabe jardunaldiok.

Mitologia ibilbide bi

Urkiolako Parketxeak Baltzola eta Jentilzubitik ibilbidea antolatu dau urri bigarrenaren 8rako. Egin gura dabenek 10:00etan daukie hitzordua Indusin, San Francisco de Olabari ermitearen ondoan. Izena alde aurretik emon behar da 94 681 41 55 telefonoan edo urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

"Baltzola eta Jentilzubi lango paraje ikusgarri batean, Sugaar, Mari, Basajaun, jentilak... izaki

doguz, baita beste hainbat be. Bertoko zugatz espezie nagusiak lotutako sinismenak eta errituak kontauz, basoaren antinako kultureari buruz be zeozertxo gehiago ikasiko dogu. Altxor immaterial zoragarri hau gure atzamar puntakaz ikututen konbidetan zaitugu" dinoe antolakuntzatik.

Gorbeia Parketxeak be mitologiari lotutako ibilbide gidatua antolatu dau, Gorbeiatik hau. Urri bigarrenaren 15ean izango da eta Saldropotik 10:00etan urtenda, 4 kilometro inguruko ibilbide gidatua egingo dabe partaideek. Izena, 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean emon daiteke. Koldo Alijostesen eskutik, antxinatik ahoz aho aitita-amamek heldu arazotako istorio miresgarrietako personaia mitologikok berbitzuko dira.



amorrortu
taberna - jatetxea - ostata

OSTATUA
638 712 523

Zubiarte 1, - 48130 LEMOA - Bizkaia
www.alojamientolemoa.com
info@alojamientolemoa.com

TXIN-TXIMINI

- Tximinien garbi-ikuzia
- Ikuskapena telebista kamarakaz
- Txosten teknikoa
- Instalazioen erabarritzea eta mantenimentua

Telefonoa 657 77 94 58
info@txin-tximini.com
TXIN-TXIMINI.COM - Bizkaia

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Beltza dago jabetza *Badau dago proiektu*

-Salmentan zein alokairuan
Lurrak (eskutatu, landu, basoak...)
Etebiziak (jauak, basoak, etxak...)
Garaioak
Lokal komertzialak
Publikoak...
-Bolorazioak

-Irakin berriak erakitzeko
Etelorak
Arkitekto-proiektuak

-Borne diseinua
-CEE eta IIE-ak
-Hirigintza ohikularitza
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Urdularrak Agirre 25, Lemoa - Ipar
Telefonoa: 94 631 81 81 - 455 16 25 25
info@arratia.com
webbidea: 455 202 117
arratiainformazioa@gorbeialde.com

Kili-Kili
Amoia eta Puzatutxo

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 42 81

Olaetxe
OPTICA ENFERIA

Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begi-ko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Zaintzaren aldeko greba danon artean prestatzeko batzarrerako deia egin dau Arratiako Mugimendu Feministak

Zemendiaren 30eko Greba Feminista Orokorra prestatzeko deia egin deutse herritarrei Arratiako Mugimendu Feministak. Batzarra, urri bigarrenaren 10ean, 19:00etan, izango da Igorreko Kultur Etxean. Greba orokorra zaintza eskubide kolektiboaren alde burrukan egiteko izango da.

Erredakzinoa

2022an ipini zan martxan Denon Bizitzak Erdigunean prozesua, zaintza sistema iraultzeko asmoagaz. Izan be, andrazkoen lan prekarizau edo debaldekoan oinarritutako oingo zaintza sistema irauli beharra, eta zaintza sistema publiko-komunitarioa eregitzea ezinbestekotzat jotzen dau feminismoak. Hori dala-ta, aurtengo martiaren 8an iragarri zan greba feminista orokorra zemendiaren 30erako. Eta greba prestatzeko, Euskal Herri osoko auzo, herri edo eskualdetako deialdietara batzeako deia luzatu eutsen herritarrei.

Arratiako Mugimendu Feministak be, danon artean gura dau zemendiaren 30eko greba prestatutea, eta hausnarketarako,

hainbat puntu jaso dauz batzarre-rako deialdian: "Zer dira zaintza lanak? Zer barne biltzean ditu?"; "Zaintza, bizitzako une eta eremu guztietan da beharrezkoa"; "Gizonak lotu zaintzari behin-go, kopon!"; "Zaintza sistema publiko-komunitarioa eregitzea beharrezkoa da" eta "Zaintza lan guztiak balorau behar dira; ordaintzen diranak eta ez diranak", hain zuzen be.

Greba feministak

2018ko martiaren 8an izan zan Euskal Herriko historiako lehen greba feministea. Orduan, zaintzan, konsumoan, hezkuntzan eta lan arloan egin eben planto andre. 2019an be lan-ixtea eta protesta jentetsuak antolatu eban Euskal Herriko Mugimendu Feministak.



AREATZA

Merkadua, musikea eta berakatz-zopea Areatzako Euskal Jaian

Erredakzinoa

Bueltan da jaia Areatzan. Urri bigarrenaren 14an, Euskal Jaia ospatuko da. Goizean, nekazal eta artisautza produktuen merkaduagaz hasita, gaueko erromeriagaz egunari amaiera emon arte, euskal tradizioari lotutako ekintzez betetako egitaraua prestatu dabe herrian.

Azokako produktuez eta bertako produktuen dastaketez gainera, musikeak hartuko dau protagonismo nagusia. Izan be, Bizkaiko Gaiteroek; Areatzako Bandak eta Nerea Zuloagak; Xukelak folk taldeak eta Oxabi taldearen erromeriak, ipiniko dabez euskal doinuak egun osoan zehar.

Herri bazkaria be egongo da. Txartelak salgai dagoz hilaren 10era arte Batzokia, Bixer, Eguzki, Hagina, Ixua eta The Quiet Corner tabernetan. Menu bi dagoz aukeran 17 euroko prezioan:

ondo etorri gildea, marmitakoa, oilasko errea eta pantxinetea; edo, humusa eta gazpatxoa, txanpiak berakatzagaz, seitana, gari zainzuri eta piper gorriakaz eta pantxinetea. Ogia, ura, kupeleko sagardoa, urteko ardoak eta kafea be badagoz prezio barruan. Iluntzean berakatz-zopea egongo da barruak berotzeko.

Egitaraua

Urri bigarrenak 14, zapatua

10:00etan, nekazal eta artisau azokea. Bertako produktuen dastaketea (gaztaia, txakolina...).

12:00etan, Bizkaiko Gaiteroak herrian zehar.

13:00etan, *Areatza kantuz*, Areatzako Banda eta Nerea Zuloaga.

15:00etan, herri bazkaria.

18:00etan, Xukelak dantzan.

20:30ean, berakatz-zopea.

21:30ean, Oxabi taldeagaz erromeria.



IGORRE

Baserriko produktuak eta azkora erakustaldia egongo dira Garbeko Azokan hilaren 8an

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 8an izango da Garbeko Azokaren XLIII. edizioa. Aurten be, hogeta hamaika ekoizle eroango ditue Garbera barazkiak, frutak, gaztaia, ogia



eta artisautza produktuak. Herrikirolak ezin dira faltau Garbeko azokan eta aurten, Lemoako Julen Mendieta eta Dimako Xabier Garcia "Utxu" azkolariek egingo dabe erakustaldia, eguerdiko 12:00etan.

Urtero lez, danetarik ekarten saiatu dirala dino Xabier Altube antolakuntzakoak, "baita zeozer barria be". Udagoiena da urte sasoirik ugariena baserrian eta bistan egongo da Garbeko salmahaietan. Baserria auzora ekarteko modu bat da eta bere sorreratik, 1975etik, hori izan da merkadu honen helburua.

ARANTZAZU

Enbeita eta Amuriza bertsolariak sanfaustoetan

Erredakzinoa

Udagoiengan be jaiak ospatuten ditu Arantzazuk: sanfaustoak. San Fausto eguna urri bigarrenaren 13an da eta hiru eguneko egitaraua prestatu dau jai batzordeak. Musikea, bertsoak, merkadua, mendi ibilaldia... danon gustuak asetuteko moduko egitarau trinkoa prestatu dabe.

Urri bigarrenak 13, barikua

22:00etan, kontzertua Herriko Tabernako terrazan.

Urri bigarrenak 14, zapatua

09:00etan, Jose Luis Atutxaren omenez Arantzazuko Mugari Bira. 14:30ean, baba-jan herrikoia. Txartelak salgai herriko tabernetan. 17:00etan, Bilbao Anaiak trikitalariak. 20:00etan, Karaoke Fest Herriko Tabernan.

Urri bigarrenak 15, domekea

10:00etatik 14:00etara, Gure 3. Azoka: Arratiako artisauak, erropa sortzaileak eta 2. eskuko liburuak eta musikea.

12:00etan, Imanol Ituiño magoa.

13:30ean, Bertso Algara. Onintza Enbeita eta Miren Amuriza bertsolariak Herriko Tabernako terrazan.



begitu
eus

OPORRETAKO ARGAZKI LEHIAKETE

Aitor Arnaizek Gorlizen egindako argazkiak eroan dau lehen saria

Bigarren saria Illart Gumuziok Habanan ateratako argazkiarentzat izan da. 48 argazki aurkeztu dira guztira, hurrean zein urrun, itsasoan, mendian edo urian ateratakoak, paisaje ederrak eta gizakiaren eta naturearen arteko konexinoa erakusten dabenak batez be. Orrialde honetara finalistak eta beste batzuk be badakarguz.



Aitor Arnaizek Gorlizen ateratako argazki irabazlea.



Illart Gumuziok La Habanan ateratako argazkia. Bigarren saria.

Aurtengo argazki lehiaketara aurreko urteetan baino argazki gitxiago bildu dabez BEGITUREN irakurleek, baina orokorrean argazkien maila sano altua izan dala ondorioztatu dau epaimahaiak




Xabier Iturriagak *Frozen-Izotz Printzesa* izenagaz bialdutako argazkia.



Arantza Iruretagoienaren *Juan Salvador Gaviota* izeneko argazkia.



Garazi Santosek Kubatik bialdutako argazkia.



Amaia Mintegik *Ferry* izenagaz bialdutako argazkia.



Amaia Zuloagak *Edinburgo* izenagaz bialdutako argazkia.



Iker Zamakonak bialdutako argazkia.

GURE 3. AZOKA
ARANTZAZU
URRIAK 15, DOMEKA
10.00-14.00



**ARRATIKO ARTISAUAK, EHUN-ERROPA BARRIAK
ETA BIGARREN ESKUKO MUSIKA ETA LIBURUAK**

12.00ETAN IMANOL ITUIÑO MAGOA
**13.30EAN BERTSO ALGARA, ONINTZA ENBEITA ETA
MIREN AMURIZA**

 **ARANTZAZUKO JAI BATZORDEA** **EURIA BADA FRONTOIAN**

AITOR SORRIKETA

"Bediak daukan herri identitatea mantendutea da garrantzikoena"

Arratian alkate izaten urte gehien daroana Aitor Sorriketa Bediako alkatea da. Bost legealdi egin ditu, 20 urte, eta seigarrenari ekin deutso maiatzeko udal hauteskundeen ostean. Herri txikietako bizimodua egiten dabela Bedian, jentea plazan batzean dala eta herritarren arteko hartu-emonak estuak dirala dino alkateak, eta hartu-emon horreek dirala Bediak daukan baliorik handiena.



Aitor Sorriketa.

Erredakzioa

Hogei urte daroazuz eta gainera, EAJ-PNVk EH Bilduri alde handia ateraten deutso beti Bedian. EAJk sei zinegotzi lortu ditu eta EH Bilduk, hiru. Zergaitik dala uste dozu?

Hori galderaori jenteari egin beharko jako. Akaso, ezetuten daben Aitor eta Aitor alkatea persona bera izateaz gainera, bardina dalako izango da, eta hartu-emona hurbila dalako. Edo gure proiektuak jenteari ondo hartzean dauzalako. Ezin deusut esan, ez dodalako gauza berezirik egiten alkatea nazanean.

Egia da ez dala ohikoa hainbeste urte egotea. Zinegotziak, esate baterako aldatzen joan dira.

Ze aldaketa egon dira oingoan?

Aurreko legealdia amaitu baino lehen zinegotzi barri bat sartu zan, beste zinegotzi bat, Imanol Ispizua, hil egin zalako abuztuan. Bere ordeiz Maialen Larruskain sartu zan eta legegintzaldi barriari mantentzen egin dogu Maialen. Unax Ispizua, Imanolen semea be sartu da.

Bedia herri txikia da, herri handiagoz inguratuta. Jenteari bizimodua bertan egiten dau ala lo egiteko herria da?

Bedia herri txikia da eta badauka zerbitzu batzuen faltea: taberna bi bakarrik daukaguz, ez daukagu dendarik... kanpora joan behar da erosketak egiten. Horregaitik, gure programan azaldu genduan moduan, Udalaren lokal baten taberna-denda bat ipini gura dogu

martxan.

Beste herriakaz komunikazio oso ondo dago eta garraio publikoa ez da falta: trena, autobus ugari... Oso hur daukaguz Galdakao eta Lemoa eta Bilbora joatea be oso erraza da.

Eta bueltan herri txiki batera bueltetan zara, herri txikien alde onakaz. Esate baterako, herriari antolatzen diran ekintzetan, jenteari guztiak izaten dau parte hartzeak aukerea. Ez da egin behar izaten zozketarik, eta gura dauan inor ez da kanpoan geratzen.

Zeintzuk dira datozan lau urteotarako daukazuezan proiektuak?

Legealdi honetarako proiektu interesgarri batzuk daukaguz, urtean zehar jenteari komentetan

Guk uste dogu, Bediak bere neurrirako kultura eskaintza polita daukala

Egia da kaminoa guretzat erronka

handia dala, baina hori aldatzeko ez daukagu aukera handirik

Umeak dituen gurasoak bai bajatuten dira

erdigunera, plazea dalako alkartuten garan

puntua. Edadekoek gatxago eukiten dabe

erdigunera bajatutea eta auzoan geratuten

dira

dituan gauzetatik sortutakoak. Adibidez, taberna-dendarena, hori jenteari eskakizuna da eta lehenbailehen egitea da gure asmoa. Beste proiektu bat da gimnasio bat ipintea martxan, Udalaren lokal baten, kirola sustatzeko. Eta *pumptracka* be egingo dogu. Ume txikien gurasoek estalitako txinboak ipintea eskatu dabe eta hori be egiteko asmoa daukagu. Eroso-Ugarten badago landa bat eta han gura doguz banku batzuk-eta ipini, jenteari astegoienean edo aisialdian bertara joateko egunpasa.

Garrantzia handiko beste proiektu bat edadekoentzat da. Bakarrik bizi dan edadeko gero eta jenteari gehiago daukagu herriari eta zerbitzu bat ipini gura dogu martxan euri bisiteta egiteko. Bisitan joan, eureka egon, berba egin apurtxo bat, ikusi egoera eta gero zeozer behar izan ezker, ba beharizan hori bete.

Horreek proiektu guztiak jenteari eskatutakoak dira.

Zenbat auzo dagoz Bedian eta zelan dagoz zerbitzuen aldetik? Erdiguneagaz konexinorik badaukie?

Hainbat auzo daukaguz: Jauregi-Yeuri, Ibarra, Eroso-Ugarte, Barroeta, Ereño, Murtatza, Astitze... Konexino edo loturea errepideaz egiten da.

Jenteari bizimodua auzoan egiten dau ala erdigunean?

Nik uste dot jenteari edadea dala horretan erabakiorra. Umeak dituen gurasoak bai bajatuten dira erdigunera, plazea dalako alkartuten garan puntua. Edadekoek gatxago eukiten dabe erdigunera bajatutea eta auzoan geratuten dira. Batez be bakarrik bizi diranak eta horregaitik da lehen esandako proiektua. Eurak gurgana ez badatoz, gu joango gara euren gure. Identifikatu egin behar dira nortzuk bizi diran bakarrik eta zerbitzua jaso gura daben ala ez.

Bedia herri txikia izan arren, N-240 errepidea pasetan da erditik eta horrek tensionau egiten dau herria, ezta?

Bai. Egia da kaminoa guretzat erronka handia dala, baina hori aldatzeko ez daukagu aukera handirik. Nik beti esaten dot, aukerea

dagoanean, niretzat Bediaren saihebideta izango litzatekela Lemoa-Boroa konexino. Horrek handituko leuke asko Bediako bizi-kalitatea. Ze, hainbeste kotxe pasetan dira! Kamioien pasoa baretu da arkuak ipini dabezanetik. Eta hori guztia nik ondo dakit ze kamino ondo-ondoan bizi naz. Ez da jenteari esan deustala, neuk sufriduten dot trafiko hori. Baina guk egin ahal dogun gauza bakarra da ekin eta ekin eta bakerik emon ez, saihebideta lortzeako.


Oin arau subsidiario barriari ateraten gabiz, HAPOa dago martxan eta horrek definituko dau hemendik urte batzuetara zelango Bedia gura dogun. Niretzat oin daukan herri identitatea mantendutea da garrantzikoena. Nik ez dot bilatzen Bedia 3.000 biztanleko herria izatea. Edo 2.000koa. Oreka eta identitatea mantendutea ez da erraza izango.

Herri txikietan hartu-emonak oso estuak dira jenteari. Uste dot hori dala Bediak daukan baliorik handiena: jenteari arteko hartu-emon estuak. Baina egia be bada, jenteari gaztearentzat etxebizitzak egin behar dirala, jenteari gazte hori herriari joan ez daiten. Hau da, oreka bat bilatu behar da, inportantea dalako herriko jenteari herriari geratzea.

Ezagun da Bediako Udalak kultura eskaintzeari garrantzia emoten deustala...

Bai. Guk uste dogu, Bediak bere neurrirako kultura eskaintza polita daukala. Ni udaletxean sartu nintzeanean, herritarren arteko konexino indartu gura izan genduan eta ikusi genduan hori kulturearen birtatez egin daitekela. Izan be, kultura jarduerakaz, jenteari, herriari gauzak egiteko aukerea emoten jako eta alkar ezetuteko. Gure ustez, holan egiten da herria eta hori izan da gure apustua betidanik.

Kultura, jenteari alkartzeko eta herriari bertan geratzeko modu bat da. Gazteei zuzendutako ekintzak, esate baterako, gazteak batzeako eta lagunak egiteko balio dabe. Bedian ez daukagu ez eskolarik, ez instituturik, baina ludotekea, liburutegia eta gaztegunea badaukaguz.



IGORRE 2023

GARBEEKO

XLIII. AZOKA

URRIAK 8 OCTUBRE



12:00ETAN HERRI KIROL
ERAKUSTALDIA



Dirutiaso larri lastetxoan

Gure

ikastetxeak

Euskalduna

kalidazkoa

herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre





IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!



-  1.255 JARRAITZAILE
-  387 JARRAITZAILE
-  2.480 LAGUN



MENDI LASTERKETEAK

Santamariak eta Geoffrayk irabazi eben Gorbeia Suzien skyrunkers lasterketea

Alain Santamariak gizonzkoetan eta Clementine Geoffrayk andrazkoetan irabazi eben Gorbeia Suzien Skyrunkers 32 kilometroko lasterketea eta biek ezarri ebezan marka barriak. Onditz Iturbe igorretarrak laugarren egin eban.

Erredakzioa

Lasterketa nagusiko gizonzkoen podiuma, Antonio Martinez Perezek eta Frederic Tranchand-ek osatu eben. Andrazkoena barriz, Iris Pesseyk eta Anastasia Rubtsovak. 21 kilometrokoan barriz, Andoni Uzkiano eta Aroa Calvo izan ziran irabazleak eta Ben Mounseyk eta Eneko Gonzalez Balanzategik osatu eben gizonzkoen podiuma eta Leire Uribek eta Uxue Zorrilla Lopezek andrazkoena.

Onditz Iturbe laugarrena

Hasikeratik Iris Pessey frantziarrak eta Onditz Iturbek ziztu bizian ekin eutsien lasterketeari.

Lehen txanpan biak ipini ziran lasterketa buruan, baina Pessey heldu zan lehena Gorbeia kurutzera; bigarrena, Anastasia Rubtsova izan zan eta Onditz Iturbe hirugarrena. Iturberen ostean, Geoffray. Atzen kilometroetan Geoffray ipini zan buruan eta helmugara lehenengoa heldu zan.

Arratiarra pozik agertu zan egindako lasterketeagaz. "Balorazioa guztiz positiboa da. Bezperan esan neban moduan Gorbeia Suzien niretzat sentimentu bat da, amets bat, eta holangoetan gatxa da burua erabiltea eta atzanean, bihotzak gidatuta egiten dozu dana. Lasterketan gustura ibili nintzan, helmugara hustuta ailegau nintzan, dana emonda eta orduan ez dago atxakiarik, ni baino hobeak izan ziran. Horrek esan gura dau behar segidu behar dogula eta aurrera egin hobetuteko bide horretan" azaldu deutso begiruri Iturbek. Bidean "animo eta bultzada handia" jaso ebalu be esan dau, eta animetan egon zan jente horri guztiari eskerrak emon deusaz mendu lasterkariak.

Arratiarrak

Gizonzkoetan, Xabier Gonzalez Goti dimoztarra 30. postuan heldu zan eta bera izan zan lehen arratiarra helmugan 3 ordu 32 minutu eta 35 segundoko denporeagaz, bere ostetik 33. postua eginda heldu zan Unai Intxaurrega Pujana zenuriztarra 3 ordu 33 minutu eta 47 segundogaz eta hirugarren arratiarra Asier Egia arteaztarra izan zan 56. postuan heldu zana, 3 ordu 55 minutu eta 25 segundoko denporea

eginda. Andrazkoetan Onditz Iturbe izan zan lehen arratiarra helmugan 3 ordu 43 minutu eta 6

segundoko denporeagaz. Tamara Txikon lemoaztarra izan zan bigarren arratiarra.



Xabier Gonzalez Goti eta Onditz Iturbe.



Lehen hiru andrazkoak.



Lehen hiru gizonzkoak.

FUTBOLA

Gizonzkoen Arratia Ak lau puntu lortu ditu partidu bitan

Arratia taldeko gizonzkoen talde biek baino ez dabez puntuak lortu joandako atzen jardunaldian euren partiduak bardinduta. Andrazkoen A taldeak 1-0 galdu eban etxetik kanpo eta Lemoako Harrobik 2-3 galdu eban etxean.

**Erredakzioa**

Gizonzkoen Arratia A taldeak bana bardindu eban Zamudio A taldearen kontra urri lehenengoaren 30ean Urbietan jokaturako partiduak. Aurreko jardunaldian 1-2 irabazi eban etxetik kanpo. Jardunaldi biren ostean Arratia Ak lau puntu ditu eta sailkapenaren goikaldean dago. Datorren partiduak etxetik kanpo jokaturako dau Indautxu A taldearen kontra hilaren 7an, arrastiko 17:00etan.

Gizonzkoen B taldeak be bardindu egin eban, 0-0, Usansolon Umore Ona A taldearen kontra urri lehenengoaren 30ean jokaturako partiduak. Ligako lehen jardunaldian 0-3 galdu eban etxean Ermua Aren kontra. Jardunaldi biren ostean Arratia Bk puntu bat dauka eta sailkapeneko behelaldean dago. Datorren partiduak Urbietan jokaturako dau Urduliz B taldearen kontra hilaren 7an, arrastiko 18:00etan.

Andrazkoak

Arratia A taldeak ostera hilaren 1ean

jokatu eban San Ignacio taldearen kontra etxetik kanpo eta 1-0 galdu eban. Aurreko jardunaldian be ezin izan eban garaipena lortu, etxean 1-2 galdu eban eta Oiarzun taldearen kontra. Lau jardunaldien ostean 6 puntu ditu Arratiak eta 11. postuan dago. Datorren partiduak Urbietan jokaturako dau Arratia Ak Mutilvera taldearen kontra hilaren 7an, arrastiko 15:45ean.

Andrazkoen B taldeak, hilaren 8an hasiko dau ligoa Basauriko ki-muak B taldearen kontra Urbietan, arrastiko 17:45ean.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik urri lehenengoaren 30ean jokatu eban Arlo-nagusian Orozkoko Atxulaur A taldearen kontra eta 2-3 galdu eban. Lehen jardunaldian be emoiera bardinagaz galdu eban etxetik kanpo Begoña A taldearen kontra. Jardunaldi biren ostean Lemoako Harrobik ez dauka punturik eta sailkapeneko behelaldean dago. Datorren partiduak etxetik kanpo jokaturako dau Berriatuko taldearen kontra hilaren 7an, arrastiko 17:00etan.



Andrazkoen Arratia A Salamancaren kontra jokaturako partiduak.

PELOTEA

Udako Master Laboral Kutxa torneoko azpitzapeldun izan da Amaia Aldai

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 24an, Hondarribiko Jostaldi pelotalekuan, Emakume Master Cup zirkuituko Udako Torneo Nagusiko finala jokatu zan, Amaia Aldai eta Uxue Osés gorritz eta Olatz Arrizabalaga eta Leire Galeano urdinez. Bostehun ikusle inguru batu ziran final handirako baina Aldai dimoztarrak ez eban txapela etxera ekartea lortu, 22-12 galdu eban bikoteak eta. Izan be,

eskuetako arazoak ditu atzenaldian eta igarri eban oingoan be.

Amaitu ez, baina partidua bardinduta eta emozinoz beteta hasi zan. Sei bardinketa egin ebezan, bederatzina atzena. Baina hor apurtu zan partidua, urdinen alde, 9-0ko partziala egin ebenean. Holan, partiduko protagonista izan zan Arrizabalagari Galeano batu jakon jokoan guztiz sartuta eta aurrera egin eben, Aldai eta Oseseri jokaturako aukera gitxi emonda.



MENDIA

Ganzabal Mendi Taldeak bazkideentzako Argazki Lehiaketa abiatu dau

Erredakzioa

Hilaren 18ra arte aurkeztu daiekiez partaideek mendia edota natura gai hartzean dabezan argazkiak. Ganzabalen egoitzan entregau ahal dira edo *argazkilehiaketa.ganzabal@gmail.com* helbidera bialdu.

Euretako hamabi erabiliko ditu

Ganzabal Mendi Taldeak 2024ko egutegia egiteko eta beste bat, agendako portadan publikauko da. Aurkeztutako lan guztiak, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako edo zabalduetako ekintzetan erabili ahal izango dira; beti be, egilearen izena aitatu. Lan sarituak mendi taldearen artxiborako geratuko dira.



ERRUGBIA

Zarauztarrak garaile San Txismen, Arratiko Zekorrek taldeari 6-31 irabazita

Urri lehenengoaren 30ean hasi eban Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek aurtengo liga, Euskal Ligako Senior 2. mailan.

Erredakzioa

Lehen partidua etxean jokatu eben zekorrek Gesalaga Okelan Zarautz/Beltzak KE taldearen kontra baina aurtan be, "jente gitxigaz" hasi dabe liga Ekaitz Duñabeitita entrenatzailearen esanetan eta jokoan igarri zan, 6-31 galduta.

Jokalari gitxi egozala-ta, Duñabeitiak hau azaldu dau: "Partidua nahiko ondo hasi zan bion partetik baina bigarren zatian apurtu zan. Aldatutako jokalar askogaz etorri ziran eta gu, fisikoki txarto gengoan bigarren zatirako; be-roak asko eragin eban". Lortutako sei puntuak, zigor kolpe bigaz eskuratu ebazan Alex Artabek.

2022-2023 denporaldia amaituterakoan, Duñabeitiak adierazo eban aurtan zekorrek "liga irabazteko burrutakuko" ebela. Beraz, liga hasikereari buelta emoteko beste aukera bat izango dabe zekorrek hilaren 7an, zapatua, Irunen. Zaisa Txingudi taldearen kontra jokaturako dabe partidua, 15:30ean Playaundera zelaian.



FUTBOLA

Zapatila personalizauak erosteko akordioa egin dau Arratia futbol taldeak

Erredakzioa

Arratia eta basq sneakers enpresea, zapatila personalizauen salerosketa akordio batera heldu dira. Holan, Arratia futbol taldeak, zapatila personalizauak merkeago erosi ahal izango dauz lau denporalditan. Zapatila honeek futbol taldearen logoa eta diseinuak izango dabez eta futbol taldekoek zein zaleek erosi ahal izango dabez.

Pedro Ormazabal Arratia klubeko presidentea, enpresearen jasagarritasuna azpimarratu dau, eta akordio honek klubeko kide izatearen sentimentua sustatuko daua uste dau. "Akordio honen errazoi nagusia enpresa honek eskaintzen dauan plusa da; hau



da, iraunkortasunaren aldeko apustua egiten dau neumatikoak birziklatuz eta zapatilak 1.000 kilometro baino gitxiagora eginez,

besteak beste. Klubeko ekipajea derrigorrezkoa da baina inoz ez dogu pentsau klubeko zapatilak eroatera behartzea. Baina aukera honek, zapatilak eroatera behartuko ez badoguz be, aukerea emoten deusku gurasoei, bazkideei... eskaintza zabaltzeko eta ondorioz klubeko kide izatearen sentimentua sustatzeko" azaldu deutso BEGITURI.

Basq sneakers Barakaldoko enpresek, ekonomia zirkularrereko enpresa barritzatzaileenari Quality Innovation Award erakundearen saria jaso eban 2021ean. Izan be, enpresek "konpromisoa hartzean dau kirol taldeko zapatila personalizauak ahalik eta modu jasagarrienean diseinatu eta ekoizteko".

MUSIKEA

Basoa Gara alkartasun musika jaialdiaren bigarren edizinoa hilaren 7an izango da**Erredakzioa**

Musika jaialdia eta umeentzako ekintzak antolatu dabez urri bigarrenaren 7rako, Arteako Bildosolan dagoan Basoa, defendatzaileen etxean. Jaialdia 14:00etan hasi eta gaueko hamabiak arte luzatuko da. Umeentzako ekintzak eta jana eta edana be egongo dira.

Jaialdiaren helburua, jente barriari Basoa osotuten daben personak eta komunitatea, antierrazismoa, feminismoa, internazionalismoa eta agroekologia landuten dauan gune hau ezetuten emotea da.

Jaialdia

Kimosoundz eta Lagunak, Gorrotoa gorroto, Alarma morea, No Name Tiriti, Hitz Tantak eta Mikey Boy & The Yee-Haws taldeek eskainiko dabez kontzertuak arrastiti osoan zehar gauerdia arte.

ZINEA

Hasi da zinea Igorren**Erredakzioa**

Udako etenaldiaren ostean, barriro be domeketan zinera joateko aukerea dago Igorren. Pelikula bi egoten dira domeketan. Bata, 17:00etan, ikusle guztientzako, batez be umeak zinera erakartea bilatzen dauana eta bestea, 19:30ean, karteldegian dagozan pelikulak beste inora joan behar izan barik ikusi ahal izateko.

Urri bigarrenaren 1ean hasi zan eta oingo hilean Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan ikusi ahal izango diran hurrengo pelikulak, *La voz del sol*, *Rally Road Racers*, *Barbie*, *Me he tragado un extraterrestre*, *Las dos caras de la justicia* eta *Tortugas Ninja: caos mutante* dira.

Igorreko Zineklubean hilaren 19an hasiko da denporaldia, Pablo Larrain zuzendariaren *Emilia* 2019ko pelikuleagaz. Hilean behin, egunenetan 20:00etan izaten da.

Holan, techno, punk, country... musika estilo ugaritako musika disidentea entzun ahal izango da Basoa Gara jaialdian.

Musikeaz gainera, poesia entzuteko aukerea be egongo da. Izan be, Basoa komunitateko kide bik, Hondurako Dalila Argueta eta Guatemalako Ana G, Aupi giza eskubideen defendatzaileek, erresistentzia poesia emonaldia eskainiko dabe kontzertuan artean.

Umeentzako ekintzak be egongo dira; malabarismo tailerra eta Antxo ta Pantxa paila-zoen ikuskizuna, besteak beste.

Izen-emotea

Malabarismo tailerrerako izen-emotea beharrezkoa da eta info@basoa.eus helbide elektronikoan egin behar da. Atzen eguna urri bigarrenaren 4a da. Jaialdirako sarrereak 5 euroko prezioa dauka.

MUSIKEA

Nhil taldeak Igorren joko dau hilaren 7an**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 7an, 20:00etan, Igorren, Garbeko zelaietan, izango da Nhil, pop eta funk estiloko musikea jotzen dauan taldea.

Nhil taldea, Aretxabaletan sortu zan 2017an, eta 2020an kaleratu eban lehen diskoa: *Aztarnak*. Urte horretan bertan Gasteizko Txosnetako Banda Lehiaketea irabazi eban. 2022ko bagilean bigarren diskoa plazaratu eban taldeak, *Bizi bagina bezala* izenekoa.

Taldea Aramaio, Eskoriatza, Arrasate eta Aretxabaletako sei musikaririk osotuten dabe: Sara Alonso abeslari eta piano-joleak, Beñat Arrieta gitarra-joleak, Asel Errasti bateria-joleak, Xabi Zua-zabeitia bajo-joleak, Lia Garai saxofoi-joleak eta Aitor Ruiz de Austri tronboi-joleak.

KRISTONAK

"Rockeroak gara eta harro gagoz"**Erredakzioa**

Kristonak talde arratiarrak Liverpool uri ingeleseko The Cavern areto mitikoan joko dau urri bigarrenaren 12an. Klub horretan jo eban The Beatles taldeak bere lehen kontzertua 1961ean, eta hirurogei urte honeetan, izen handiko musikariek jo dabe bertan, rockaren historia kontetako ezinbesteko eginaz The Cavern aretoa. Kristonak be han egongo da, Dimetal Fest-en jo ostean. Peio Artetxe bajo-joleak erantzun ditu BEGITUREN galderak.

Hilaren 12an, Liverpooloko The Cavern taberna mitikoan joko dozue. Zer suposatzen dau horrek taldearentzat? Pop britainiarraren sorlekutzat jotzen da eta bere 65 urte baino gehiagotan, lehen lerroko artistek jo dabe bertan.

Badago munduan Meka moduko hainbat leku sagradu non fidelak zapaldu behar daben behintzat bizitzan behin. Holango zeozer da The Cavern musikea zanetan da-roagunontzat. Estilotik harago, The Beatlese garai bat markau eban, moda bat, mobimentu bat, eta hori guztia areto txiki haretan sortu zan. Bertan jaio zana bizirik dirau 60 urte eta gero. Ba, gu jaio aurretik handik datorren zeozer da, gu egin gaitue-na, Kristonaken zati bat dana. Zer izango zan The Beatles The Cavern barik? Eta zer izango gintzatekez gu The Beatles barik? Ziur gagoz musikea egingo genduala, baina agian Moogie-Boogie, Deabrua, Latigo... beste era batera entzungo zirala. Bada gutizia bertan jotea, baina aldi berean premina. Britainian eta munduan musika aldatu ebanaren erroagaz konektetea. John, Paul, George eta Ringoren hastapenen akordeen oihartzun galduren bat topatzea. Arrakastearen formula deszifrete.

The Beatles-ek 1961ean jo eban. Gizartea, mundua eta musikea bera be asko aldatu da 62 urte honeetan. Ze lotura dago momentu bi horreen artean? Beatlesen eta zuen kontzertuaren artean?

1960ko hamarkadeak eta gaur egungoak ez daukie zerikusirik. Guk ez dogu ezetu sasoi hori eta gure gurasoak be umeak ziran garai haretan. Jakin dakiguna diskoetatik, liburuetatik eta pelikuletatik... eskuratu dogu, eta akaso, sasoi haren inguruan gure irudimenean dagoana gertatu zanaren distorsio magnifikau bat da, legendaren filtroaren ikuspegitik susmau doguna eta bizi gurako geunken ideala. Baina seguru gagoz errealidade bat be badala garai haretaz dakiguna,



magikoa dan zeozer gertatu zala benetan, 1960 urtea eta gero, gure hautu propioz eta atseginez musika hori entzutea eta jarraitzea ebatzi dogulako. Behin entzundako kanta zahar gordinak engantxau gaitue autotunearen garaian bizi garalarik eta horretan manteniduten gaitue. Rock'n rollak beste genero batzuek euki ez daben zeozer dauka bizirik manteniduten dauana. Oingo sasoi, rock'n rolla beste era batera bizi da, beste soinu bat dauka, baina igartzen da rock'n rolla dala eta jenteak gustuko dauala. The Beatles eta Kristonak horren islada dira. Akaso, desbardintasun gehiagoko daukaguz antzekotasunak baino: estetikea, zuzeneko, soinua, jarkerea, hizkuntzea, garaia... baina talde biak desbardintasun guzti horreetan bihurtuten dira antzeko, desbardintasun guzti horreek egingen gaitue biak rockero.

Lehenengo aldia izango da bertan talde batek euskeraz kantetan dauala, ezta?

Hori dinoe behintzat. Guk dakigula, ez da euskal talderik handik ibili jotzen eta bertan euskeraz abestu dan testigantzarik ez dogu topau. Baleiteke gu baino frikiagoa dan nonok horretaz ondo jakitea eta idaztea, bideo edo audioren batzuek gure teoria deusestatzen, baina agertzen ez dan bitartean, Kristonak pibilegio horretaz disfrutauko dau. Niko Etxartek rock'n rolla ekarri eban Euskal Herrira 1970eko hamarkadan, eta Nikoren profetak garan moduan, gure agindua euskerea rock'n rollaren zuztarrera eroatea da.

Dimetal Fest-en be joko dozue: heavy metalaren jaialditik, poparen tenplura. Zuen musikeak generoak gaintzen ditu?

Gu rockeroak gara. Harro gagoz horretaz eta holan definiduten dogu geure burua. Horrek ez dau esan gura bestelako estilo musikalak baztertzen doguzanik, guztiz kontrara, beste musika mota batzuetan arakatzea gustetan jaku eta gure doinuakaz buztartzea gauza barriak egiteko. Rockero hutsa dan bakarra gurean jarkerea eta plan-ta da. Led Zeppelinekoek esaten eben euren musikeak ez ebal es-tilorik, egindako guztiak lekua ebal Led Zeppelinen; eta rockaren garai bat markau eben. Iturri horretatik

edaten dogu guk. Identidade propio bat sortzeako malgutasunez olgau behar dozu eta genero guztiek daukie leku bat gure konposaketan, nahiz eta oinarriko osagaia rock'n rolla izan. Filosofia horregaz konposatu izan dogu beti eta ildo horretatik jarraituko dabe gure hurrengo proiektuek.

Zeintzuk dira zuen etorkizuneko planak?

Ontsua urtebete egingo dogu *Ahobetehortz* diskoa kaleratu genduanetik. Urte hau kontzertuak emoten ibili gara diskoa aurkeztuteko. Hemetik aurrera hortan jarraituko dogu baina maiztasun ez hain handiagaz. Badaukaguz idea batzuk hurrengo proiektuetarako eta horretan gabiz. Espero dogu hemendik epe ertain batera gauza barriak kaleratzen hastea.

Askotan esan dozue, euskal rocka salbetan etorri zariela. Salbauta dago? Zelan ikusten dozue panoramea?

Beti dinogu Kristonak-ek bizirik dirauan bitartean, rock'n rollak bizirik jarraituko dauala. Hori gure aldetik behintzat ziurtatu leikegu. Rocka hiltzen diharduan bitartean bizirik dauala esan gura dau. Euskal panoramea ez da lehengoa baino hobe ezta txarragoa, desbardina baino. Pasautako garaiak hobeak izan dirala esateak, nostalgian jaus-tea dakar. Elektrikotik elektronikora pasau gara, analogikotik digitalera, LPtik singleetara. Gustau ahal jatzu, gehiago ala gitxiago, eta gatxa egiten da batzuetan aldaketea ulertzea, baina onartzea besterik ez dago. *Revivalek* ez dabe lagunduten rock'n rolla salbetan, alde-rantziz baino: rockero barriak ge-reizpetuten dabez. Guk rock'n rolla maite dogu The Beatlese maitatzen eban moduan, baina ez gara 1961ean bizi ezta sortu be. Rock'n rollak bide luzea dauka ondino aurretik, baina nostalgia alde batera itxi behar da horretarako. Bizirik mantenidu gura badogu rock'n rolla egiten eta egiteko, Instagram, Youtube eta Tik-tikokeko rock'n rolla egitea toketan jaku zoriz, onez edo txarrez. The Beatlese aurtan, urte asko eta gero, single barri bat aterako dau inteligentzia artifizialagaz Lennonnen ahotsa berbituz. Eurak gaurkotuten badira, zelan ez gara gaurkotuko gu?

BERTSOLARITZEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako saioak Igorren eta Lemoan

Erredakzioa

2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketea urri bigarrenaren 1ean hasi da, Mungian jokaturako kanporaketeagaz. Guztira hamar saio izango ditu txapelketak: sei kanporaketa, hiru finalaurreko eta finala. Igorren jokaturako da kanporaketa bat eta Lemoan finalaurreko bat.

Aurten ez dau parte hartuko Arratiako bertsolaririk. Arantzazuko Igor Menika Bengoetxea gai-emoile taldean eta talde teknikoan dago.

Bosgarren kanporaketea Igorren jokaturako da hilaren 29an, 17:00etan, Lasarte Aretoan.

Lekeitioko Aissa Intxausti Aburruza, Muxikako Asier Galarza Garai, Foruako Eneko Aldana Carrasco, Gernika-Lumoko Janire Arrizabalaga Munduate, Mungia Jone Larrinaga Dañobeitia eta Bilboko Oihana Bartra Arenas neurtuko dira bertan.

Lemoan, finalaurrekoa jokaturako da zemendiaren 25ean, 17:00etan, kiroldegian. Han, Markina-Xemeingo Nerea Ibarzabal Salegi, Muxikako Onintza Enbeita Maguregi, Gernika-Lumoko irabazlea, Igorreko irabazlea, puntuazinoz bigarrena eta puntuazinoz bosgarrena neurtuko dira.

Finala, abenduaren 16an jokaturako da Bilboko Bilbao Arenan.

Komunidade euskaldunari eta euskal kulturagintzeari ekarpena

Txapelketea antolatuten dauan Bizkaiko Bertsolari Elkartearen arabera, bost helburu nagusi ditu 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketeak: bertsogintzearen oinarria finkatzea eta garatzea; komunidade euskaldunari eta euskal kulturagintzeari ekarpena egitea euskerazko kalidazeko eta ereduagarria dan sorkuntzeagaz; jente-arte anitza islatzeko ahalegina; Bizkaiko bertsolaritza azalera eta Bertsolari Elkartearen lana jente-arteratzea; hain zuzen be.

Bertsolaritza Elkarteak "genero, maila sozioekonomiko, adin, ideologia eta jatorri danak islatuta egongo diran Txapelketa" antolatzeke ahalegina egin daua adierazo dau.



DISKOA

Lubakiak rock opera diskoa kaleratu dabe David Ibarra "Houston"ek eta Iñaki Akesolok

Igorreko Iñaki Akesolok (gitarra) eta Dimako David Ibarra "Houston"ek (ahotsa), A&K taldeak, *Lubakiak* izeneko rock opera bat kaleratu dabe. Hamar bat urteko lana da eta taldeak sortutako 13 kantu jasoten dira diskoan.

Erredakzioa

Historia honetako protagonistea dan Antonio/Andonik argitaratutako aldizkariaren izena da Lubakiak. Operako abestietan, kazetari honen eboluzioa personala kontetan da, haurtzarotik aldizkaria argitaratu arte. "Fikzioa bada be, benetako Euskal Herria erakusten da; XX. mendeko atzen hiru hamarkadak, hain zuzen. Eta komunikabideen podereaz berba egin arren, Andoniren barne hausnarketetan oinarritzen da" azaldu deutso BEGURI Houstonek.

Diskoaren azala antxinako aldizkari edo egunkarien modukoa da eta barruan kantu bakotxaren letrearen laburpena dago.

Opera rock baten sormen prozesua

Oin dala 10 bat urte, "Pink Floyd eta The Who eta antzekoen taldeen musika entzuten nengola pentsau neban gurako nekela historia bat kontetea kantu

bidez" dino Dimakoak. Ete bere hausnarketak kazetari baten ahotan ipintea jo eban egoki. "Jakin nebanean zertaz egin berba, melodiak sortzean hasi nintzan. Kanten hitzak neuk sortutakoak dira eta musika Iñaki eta bion artean".

Operea amaituta egoanean, Iñaki Akesoloren estudioan egin zan grabazioa eta Akesolo bera da

lanaren produktorea. Autoekoizpena, autopromozioa, autobanaketea... dana Akesolo eta Houston-en artean eginda dago eta Arratiako tabernetan dago salgai. Diskoa bagilean kaleratu bazan be, oin dabiz ezetutera emoten, datorren udako jaietan, kontzertuak emoteko helburuagaz.

A&H

Akesolo eta Houston 1991 urtetik dabiz alkarlanean. Urte haretan The Impresentables taldean ibili ziran. Talde honegaz disko bi kaleratu eta gero, beste talde bat sortu eben, Harrobi. Harrobi taldeagaz, *Moai* diskoa atera eben 2005ean, eta *Harrobian Indusi* izenekoa 2009an. 2018an, Houston Pub taldeagaz, rock klasikoan bersinoez osotutako diskoa kaleratu eben. Azkenik, bikote moduan, A&H, *Lubakiak* rock opera bat kaleratuko dabe, euren lan guztietan legez, betiko rock musikan oinarritutakoa.



DUNBA

Azkena hurrean

Arratia BHIko 4. mailako kazetaritza tailerreko ikasleak

Aupa! Gu Arratia BHI Institutuko 4. mailako ikasleak gara, kazetaritza tailerrekoak. Urte hau atzena izango da gutako askorentzat, eta asko disfrutau dogu hemen egon garan denpora guztian. Maskara arpegian sartu ginan, eta irribarra ahoan ateraten gara. Eta gugaz batera gure euskera irakasle izandako Sara Iturbek, geografia-historiako Angel Larreak, eta biologia-geologiako Ana Ruizek kurso honetan institutuari agur esango deusie.

Atzenean, gura edo ez, DBH gure bizitzako etapa bat da, baina etapa guztiak legez, atzean itxi behar da jada etorkizunean pentsetan hasteko. Hori uste dogu dala eronka handiena, bakotxak bere



bidea zein dan deskubridutea, eta bakotxak gustuko dituan saltsetan sartzea. Hasikera guztietan beti izaten da bildurtxo, baina nahiz eta hasikeran ez pentsau hau esango genduanik, faltan botako dogu institutua eta bertan sortutako

familia txiki hau. Oroitzapenak, baina, gure gogoan izango doguz beti. Oindino gogoratzen gara gure lehen jaialdiaz, hainbeste bildur eta duda, hainbeste lotsa... Eta beti gogoratuko dogu aurtengoa, atzena izango dalako, nahiz eta

danona ez izan. Zelan ahaztu gure lehen bihurrikeriak edota galiziarrek eta katalanak etorri ziranekoa, edo edurretara egindako urtekerea... horreek bai egun onak! Institutuak une onak emon deuskuz, eta hori eskertu baino ezin dogu egin.

Gure atzen urtea da eta pena handiz amaituko dogu. Bizipen asko daukagu institutu honetan... lagun onak egin doguz bertan. Ondo konponduten gara alkarreagaz, inoz arazoak izan doguzan arren; baina arazo horreek konpondu doguz, eta hori be bada bizitzan ikasi beharreko prozesu bat: hartu-emonak zaintzearena. Eta pena handiz agur esan behar deutsegu, ikasle eta irakasle guztiei.

Maskarilagaz ta metro bire klasean lehenengo aldiz persianetako mandoa be lekuz aldatute ageriz barre ingu kedadaren baten

akordu horrik ekarriz zuokaz azkenengo urteak pasauko nituzke berriz.

Zuon barre ta negar bakotxa dau nire bihotz barnean lehen mailatik familia bat sortuez gure artean negar malko bat joango jaku urte honik aipatzean berriz ikusiko gara laster gure txokoren batean.

Eskerrik asko gure bizitzako zati honen parte izan zarienoi, ikasle zein irakasleoi. Institutuko langile eta laguntzaile guztioi.



AGENDA

URRI BIGARRENAREN 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoenetan, 09:00etatik 21:00etara.

Buztinolan zeramika ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Ikastaroak hileon hasiko dira. Prezioa 140 euro hiru hilebetero. Izena emoteko 615 731 182 telefonora deitu.

Hilaren 10era arte, 14an izango dan Euskal Jaiko bazkarirako txartelak salgai Batzokian, Bixerren, Eguzkin, Haginan, Ixuan eta The Quiet Cornerren. Menuak: ondo etorri gildea, marmitakoa, oilasko errea eta pantxineta; edo, humusa eta gazpatxoa, txanpiak berakatzagaz, seitana, gari zainzuri eta piper gorriakaz eta pantxinetea. Ogia, ura, kupeleko sagardoa, urteko ardao eta kafea barne. Prezioa: 17 euro.

ARTEA

5 eta 12 urte bitartekoentzako marrazkigintza ikastaroan apuntetako epea hilaren 6ra arte. Prezioa: 100 euro. Urri bigarrenetik bagilera. Udaletxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

16:30etik 19:30era, atzen eguna, urri bigarrenaren 7an egingo dan 12 eta 26 urte bitartekoentzako urtekerarako izen-emotea liburutegian Bilboko itsasadarretik piraguan ibilteko.

Hilaren 20ra arte, Playmobilakaz belena egiten parte hartzeako izen-emotea liburutegian.

DIMA

Dimako Udala Indusi auzo-eskolako argazkiak batzean dabil erakusketa bat egiteko. Argazkiok udaletxean eskaneau eta bueltan emongo jakiez jaubeei edo harrera.dima@bizkaia.org helbide elektronikora bialdu daitezke.

IGORRE

08:00etatik 22:00etara, astelehenetik domekara ikasgela zabalik Kultur Etxean.

Liburutegia zabalik astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kultur Etxean.

Ganzabalek zemendiaren 19rako antolatutako Lemoatx Trailerako izen-emotea buscametas.com webgunean.

Hilaren 18ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen 17. Argazki Lehiaketan argazkiak aurkezteko epea zabalik.

ZEANURI

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik eguenero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Udagaien osoan, Gorbeia Parke Naturalak Otzarreta ingurua gozatzeko natura errespetatzu, konzientziarazino kartelak ipiniko ditu Barazar mendatearen inguruan.

Hilaren 8ra arte emon daiteke izena hilaren 13an izango dan Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten alkarteak antolatutako Ezkio-Itsaso eta Bergarara bisita gidatua eta bazkarian. Prezioa: 25 euro.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

08:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, hilaren 4ra arte, zemendiaren 3tik 5era izango dan Zeberio Km 0 jaialdirako astegoen osoko bonuak salgai udaletxean zeberioztarrentzat.

URRI BIGARRENAREN 4
ARTEA

Hilaren 7an, Basoa Gara alkartasun musika jaialdiko umeentzako malabarismo tailerren izena emoteko azken eguna info@basoa.eus helbidean.

DIMA

Indusiko jaiak, sanfreskuak. 12:00etan, mezea; 12:45ean, Indusiko auzo-eskolearen mendeurrena; ostean, barauskarria.

ZEBERIO

18:30etik 20:30era, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa andrentzat, eskola zaharreen.

Argazki Lehiaketea abiatu dau
Udalak 2024ko egutegia egiteko

Hilaren 31ra arte bialdu daitezke, Lemoa gai hartuta egindako argazkiak kultura@lemoa.eus helbidera.

Argazkiak formatu horizontalekoak izango dira eta edonork hartu daiteke parte. Partaide bakotzak argazki bakarra bialdu ahal dau. Argazkiagaz batera, egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta argazkia ateratako lekua eta data adierazoz behar dira.

Epaimahaia Udalak zientauko dau. Aukeratutako 12 argazkiak, egutegian argitaratuteaz gainera, opari bana izango dabe. Sari banaketea abenduan izango da.

URRI BIGARRENAREN 6
ARTEA

10:00etatik 16:00etara, Spirlurrek eta Arratiako Industrialdeak, Arantzazu, Artea eta Igorreko Udalakaz batera, Urban Mobility Days ekimenaren barruan, Arratiako enpresetako erabiltzaile eta langileek ibilgailu elektrikoak gidatzeko aukerea. Izena alde aurretik emon <https://urbanmobilitydays.com/eu/spirlur> estekan.

DIMA

Indusiko jaiak, sanfreskuak. 17:00etan, Briska eta Tute Txapelketak; 19:00etan, txitxi-burduntzia; 21:00etan, Eingo taldea; 22:00etan, txokolatea.

LEMOA

19:00etan, Lemoako Ikastolako 50. urteurrena. Herriko hezkuntza sistemeari aitortpena: auzo eskoletatik egungo eskolara. Kotxepin Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAREN 7
AREATZA

20:00etan, Lilofeeren kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

14:00etan, Basoa Gara alkartasun musika jaialdia. Kontzertuak: Kimosoundz eta lagunak, Gorrotoa gorroto, Alarma morea, No Name Tiriti, Erresistentzia poesia Dalila Argueta-Ana G. Aupi, Hitz tantak, Mikey Boy and The Yee Haws. Umentzako ekintzak: 16:00etan, malabarismo tailerra; 17:00etan, Antxo eta Pantxaren *Papertxori* antzezlan. Basoa defendatzaileen etxean.

BEDIA

Udalakeratuta, gazteek Bilboko itsasadarretik piraguan gauetz ibilteko urtekerea.

Eleizalde Bediako Jubilatua eta Pentsionisten alkarteak eratuta, Biarriztera urtekerea.

DIMA

Indusiko jaiak, sanfreskuak. 12:30etan, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia; 14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketea; 14:30ean, bazkaria eta bazkalostean bertsolariak: Beñat Ugartetxea eta Ibon Ajuriagojeaskoa; 17:00etan, umeentzako ekintzak; 19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketea; 21:00etan, bakarrizketea: Maria Blanco, Iker Plazaola eta Julen Portillo; 22:00etan, erromeria Jainaga eta Narbaizagaz; 22:30ean, txokolatea; 23:00etan, zozketea.

IGORRE

10:00etan, Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatuta, Mendiak aske, Aramotzera igoera lurraren defentsan. Goiko plazan.

20:00etan, Nhil-en kontzertua Garben.

UBIDE

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, oreinen marraudia entzuteko Ubidetik Oketa tontorrera. Izena gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan emon.

ZEBERIO

08:00etan, Austarri Mendi Taldeak antolatutako mendiko urtekerea. Mendaur (1.131 m)-Ekaitza (1.046 m)-Irakurri (1.142 m)-Arriurdineta (1.059 m).

URRI BIGARRENAREN 8
DIMA

10:00etan, Urkiolako Parketxeak antolatuta, Ibilbide mitologikoa: Baltzola eta Jentilzubi. Indusiko San Francisco de Olabarriko ermitearen ondoan. Izena emon alde aurretik, 94 681 41 55 telefonoan edo urkiola.park.naturala@bizkaia.eus helbidean.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Rally Road Racers*; 19:30ean, *La voz del sol* Lasarte Aretoan.

LEMOA

11:00etan, bigarren eskuko merkadua Atxeta plazan.

URRI BIGARRENAREN 9
BEDIA

Hilaren 20ra arte, 12 urtetik gorako gazteentzako bildurrezko makillaje tailerretarako izen-emotea liburutegian. Tailerra urri bigarrenaren 28an, 16:30etik 18:30era izango da. Baita San Martin eguneko (zemendiak 11) bazkarirako izen-emotea liburutegian.

17:30ean, jubilatuen alkarteak antolatutako Begoña Uriarte psikologoaren berbaldia: *Nola bizi gehiago eta hobeto*. Liburutegian.

URRI BIGARRENAREN 10
BEDIA

17:30ean, jubilatuen alkarteak antolatuta Ana Martin psikologoaren berbaldia: *Ongizate emozionala*. Liburutegian.

IGORRE

19:00etan, zemendiaren 30eko greba feminista orokorra prestatzeko batzarra Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAREN 11
AREATZA

20:00etan, Perkusbikaren kontzertua plazan. Elur Arrieta eta Vicent Zaragoza.



ZEBERIO

18:30etik 20:30era, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa andrentzat, eskola zaharreen.

URRI BIGARRENAREN 12
LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako hilaren 15era arteko mendiko urtekerea. Puello de Segarra (1.994 m), Punta Lo Raso (1.656 m), Cupula de Secus (2.421 m), Pico de Larraia (2.146 m), Pico de la Cuta (2.149 m) eta Ramirez (1.824 m).

URRI BIGARRENAREN 13
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 22:00etan, kontzertua Herriko Tabernako terrazan.

ZEANURI

09:10ean, Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten alkarteak antolatuta, Ezkio-Itsaso eta Bergarara bisita gidatua: sagardoa prozesua eta Igartubeitia baserrira. Bazkaria Agirretxea jatetxean eta arrastia Bergaran.

URRI BIGARRENAREN 14
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 09:00etan, Jose Luis Atutxaren omenez, Arantzazuko Mugari Bira; 14:30ean, baba-jan herrikoa, txartelak salgai herriko tabernetan; 17:00etan, Bilbao Anaiak trikilarik; 22:00etan, Karaoke Fest Herriko Tabernan.

AREATZA

Euskal Jaia. 10:00etan hasita, nekazal eta artisau produktuen azokea eta bertako produktuen dastaketea; 12:00etan, Bizkaiko Gaiteroak herrian zehar; 13:00etan, *Areatza kantuz*, Areatzako Banda eta Nerea Zuloaga; 15:00etan, herri bazkaria; 18:00etan, Xukelak dantzan; 20:30ean, berakatz-zopea; 21:30ean, Oxabi taldeagaz erromeria.

URRI BIGARRENAREN 15
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 10:00etatik 14:00etara, Gure 3. Azoka, Arratiako artisauak, errota saltzaileak, eta bigarren eskuko liburuak eta musika; 12:00etan, Imanol Ituiño magoa; 13:30ean, Bertso Algara: Onintza Enbeita eta Miren Amuriza Herriko Tabernako terrazan.

AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, euskal mitologiara hurreratutako ibilbide gidatua Koldo Alikostenen eskutik. Izena gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan emon.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Me he tragado un extraterrestre*; 19:30ean, *Barbie*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

11:00etan, Gorbeia Turismoko antolatuta, Undurragako urtegiari bueltea ibilbide gidatua. Plazan.

URRI BIGARRENAREN 16
DIMA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik eguenera.



KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

TXAKURRAK EMOTEN DODAZ

Hiru ehiza bakur daukadaz emoteko. Hilebete bi daukiez. Igorreko Agarreko baserrian dagoz. Interesdunek deitu: 661 259 002.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Areatzan garajea alokatzen da; bertan, motorra edo atoa gordetzeko modukoa. Interesdunek deitu telefono honetara: 615 005 959.

LANA

GITARRA KLASAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase

personalizauak emoten dodaz adin guzietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), urmeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

INGELES IRAKASTEKO IRAKASLE BILA

Ingelesa irakasteko klase partikularrak etxean emoteko irakasle bila nabil, DBH 2. mailako ikasle batentzat. Interesdunek idatzi WhatsApp bidez 658 757 899 zenbakira.

FRANTSESEKO KLASAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

Zeozar saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa




Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Barbie* filmarako.

2 Kristonak taldeak emondako materiala.

Borja Aldekoa (Zeberio)
Jasone Aldekoa (Zeberio)



Nerea Basterra (Arantzazu)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

begitu
eus

ORTOMOBILITY

Zure mugikortasuna hobetuz
Bizkaiko esposizio handiena, zugandik gertu!

- SALMENTA ETA ESPOSIZIOA
- ZERBITZU TEKNIKOA
- TAILERRA
- ETXERAKO ZERBITZUA
- ADINEKO PERTSONEN ZAINZTA ZERBITZUA ETXEAN

Txartel hau moztuta ekarri eta %5eko deskontua edukiko duzu, dendako edozein artikulutan, lehenengo erosketan.

%5eko deskontua*
ORTOMOBILITY

*Eskaintza hau ballagarria da abenduaren 15era arte.

www.ortomobility.com
info@ortomobility.com
Mendieta 1 Lemoa BIZKAIA
946 738 203

begitu **20** urte

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.